

2011ko unibertsitate aurreko lantegiak Donostiako campusean

Gipuzkoako hainbat ikastetxetako batxilergoko lehenengo mailako ikasleek 2011ko unibertsitate aurreko lantegietan parte hartu dute, Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateak eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak bosgarren aldiz Donostiako campusean antolatzen dituztenetan. Aurtengoan publizitateko, irratiko, multimediatiko, gizarte trebetasunetako, bidaia berezien antolaketako, pentsamendu aurreratuko, sormen tekniketako eta txinatar hizkuntza eta kulturako hastapenetako lantegiak antolatu dira.